



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

**CONVENTION DE PARTENARIAT
EN FAVEUR DE LA CULTURE BASQUE**

**EUSKAL KULTURAREN SUSTENGATZEKO
PARTAIDETZA HITZARMENA**

Hitzarmen hau honako erakunde hauek izenpetu dute :

Baionako Udalak, jardunean dagoen eta 2010eko otsailaren 18ko Herriko Kontseiluaren erabakiren bidez horretarako ahaldundua den **Baionako Auzapez Diputatuak ordezkaturik**,

alde batetik,

Eta

Euskal kultur erakundeak, 1990eko maiatzaren 22an Baionako Suprefeturan deklaratu elkarteak, egoitza soziala Uztaritzen, helbide honetan - Lota Jauregia, 6 P.K., 64480 - duenak, **Mikel Erramouspe** lehendakari jaunak ordezkaturik,

bestetik.

Ondokoa adostu eta finkatu dute :

AITZINSOLASA

Euskal kultur erakundea (EKE) 1990ean sortu zen, euskararen eta euskal kulturaren arloan lanean ari ziren elkarteek bultzaturik eta elkargo zein erakunde publikoen sustengu erabakigarriari esker.

Baionako hiriak, barrutiko hiriburu gisa eta administrazio, ekonomia, kultura eta unibertsitate mailako jarduera anitzentzat hiri nagusia baita, Euskal Museoaren eta ohiko

dantza eta musika Zentroaren egoitzak, besteak beste, aterbetzen dituenak, euskal kulturaren aldeko politika publiko baten egituratze prozesuan parte hartzeko asmoa du.

Ondorioz :

Kontuan harturik Euskal kultur erakundearen xedeek - 1990ean, hau da, EKE sortzerakoan finkaturik eta 2009ko martxoaren 7ko biltzar nagusian sendoturik - ondoko helburuak daramatzatela :

- euskal kulturaren arloan Obragintza Laguntzaile izatea erakunde publiko zein lurralde elkargoentzat ;
- sustengu eraginkor eta sortzaile bat ekartzea euskarari eta euskal kulturari ;
- goren mailako ikerketa eta kultur trukaketarako organo bat izatea arlo guzietan ;
- euskal adierazpen desberdinei lotu jarduera esparruetan esku hartzea : literatura eta liburugintza, antzerkia eta bertsolaritza, ikus-entzunezko baliabideak, dantza, kantua eta musika, arte plastikoak, ondarea eta ingurumena, euskal kirolak.

Kontuan harturik Baionako Udalak lehentasunak finkatu dituela ondoko arloetan :

- kultura eta artea (sorkuntza, hedapena eta heziketa artistikoa sustengatuz),
- euskararen alde, Euskararen Erakunde Publikoarekiko partaidetza hitzarmenaren arabera,
- ondarearen balorazioa eta turismoaren sustapena, Udalak abiarazi duen « Arte eta historia Hiria » deitu labelizazio eginbidearen arabera,

Onartu da EKEren eta Baionako Udalaren arteko partaidetza bat abian jartzea, hitzarmen honen bidez gauzaturik.

1. ARTIKULUA : HITZARMENAREN HELBURUA

Hitzarmen honen helburua honako hau da : Euskal kultur erakundearen eta Baionako Udalaren arteko partaidetzaren esparru orokorra zehaztea.

Hitzarmena, 2009ko martxoaren 7ko biltzar nagusiak onetsi duen Euskal Herria 2020 lurralde programaren baitan kokatzen da.

2. ARTIKULUA : BAIONAKO UDALAREN EGINBEHARRAK

Baionako Udalak baieztatu nahi du Euskal kultur erakundeak esku hartuko duela euskal kulturaren baliabide-gune eta erreferente gisa. EKEri galdeginen dio euskal kulturaren eta partaidetza artistikoaren arloetan daukan jakitatea udaleko kultur ekipamenduek eta kultur elkarteek eramanen dituzten ekitaldien zerbitzura jar dezan.

3. ARTIKULUA : EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN EGINBEHARRAK

Euskal kultur erakundea engaiatzen da euskal kulturaren baliabide-gune bat izatera Baionako Udalarentzat, udaleko ala udal inguruko kultura zerbitzu edota kultura

lekuentzat (Bonnat Museoa, Liburutegiak, Euskal Museoko Sindikatu Anitza, Turismo Bulegoa, udaletik kanpoko Baionako Besta Batzordea, eta abar...), bai eta Baionako kultur egitura eta elkarteentzat ere. Proposamen iturri bat izanen da euskal kultura Baionako Udalak antolatzen dituen programazioen baitan txertatzeko.

4. ARTIKULUA : EBALUAKETA MODUA

Batzorde tekniko bat urtean behin bilduko da partaidetza honen bilana egin eta geroko lan ardatzak finkatzeko.

Honela osatuko da :

Baionako Udalaren izenean :

- kultura eta ondareaz arduratzen den hautetsia
- kultura eta ondarearen zuzendaria
- hizkuntza politikaz arduratzen den hautetsia
- euskara teknikaria

Euskal kultur erakundearen izenean :

- EKEko lehendakaria
- EKEko zuzendaria
- EKEko teknikari bat

Baionako Turismo Bulegoaren ordezkari bat gonbidatzen ahalko da turismo garapenari lotu proiektuak aztertzeraz.

Udaletik kanpoko Besta Batzordearen ordezkari bat gonbidatzen ahalko da Baionako Besten esparruan prestatuko diren animazio proiektuak aztertzeraz.

5. ARTIKULUA : JARRAIPEN MODUA – Diru baldintzak

Partaidetza hitzarmen honek ez die diru-engaiamendurik eskatzen bi alderdiei.

Koprodukzioa edo koerrealizazioa eska lezaketen proiektuak izanez gero, Baionako Udalak eta Euskal kultur erakundeak partaidetzarako baldintzak dagozkien eragileekin aztertuko dituzte. Orduan, hitzarmen berezi bat finkatuko da, oinarri-akordio honen errespetuan.

6. ARTIKULUA : HITZARMENAREN IRAUPENA

Hitzarmen honek hiru urteko iraupena du.

Hiru alderdietarik edozeinek sala dezake, hartu agiriarekiko gutun egiaztatu baten bidez, hilabete bateko aurreabisu batekin.

Hitzarmena amaitu aitzin, komeniko da lanaren kalitateko eta kantitatiboko ebaluaketa bat egitea, Baionako Udalak eta Euskal kultur erakundeak (EKEk) elgarrekin prezia dezaten baliabidea jarraitu, geldiarazi ala aldatu behar ote duten.

7. ARTIKULUA : ALDAKETA ETA DEUSEZTATZEA

Hitzarmen honen klausulak doitu edo aldatzeko, emendakin bat beharrezkoa izanen da.

Idatzitako klausulak errespetatzen ez badira, hitzarmen hau, noiznahi, eskubide osoz deuseztatzen ahalko da.

8. ARTIKULUA : AUZIEN KONPONTZEA

Hitzarmen honen aplikatzeko edozein auzi gertatuz gero, izenpetzaileek erabakitzen dute auzia Paueko Auzitegi Administratiboaren eskumen eskusiboaren mende jartzea.

Baionan egina, bi aleetan,
2010eko maiatzaren 21ean

Baiona Hiriko auzapez-diputatua

Euskal kultur erakundeko lehendakaria

Jean GRENET

Mikel ERRAMOUSPÉ